

Irailaren 1ean
URTEAN ZEHARREKO 22. IGANDEA

Agurra

Askatzen eta salbatzen gaituen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristok bildu gaitu Igandean Eukaristi otordua ospatzera: bertan Jainkoaren Hitza eta Jaunaren Gorputza eta Odola izango ditugu janari. Fedearen misterio eder hau ospatzeak lagun diezagula egiaz Jainkoarekin topo egiten, Bere antz eta irudira molda gaitzan.

Damu-otoitza

Gurutzeko misterioa ospatzeko, aitor dezagun bekatari garela:

- Jesus Jauna, Zu zara gure bidea. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Zu zara gure egia. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Zu zara gure bizia. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Zeru-lurren Jainkoa, Zuregandik dator on guztia;
sartu gure bihotzetan zure izenaren maitasuna;
lotu gaitzau gero eta estuago Zurekin,
gure baitan biziarazi dezazun on den guztia,
eta biziarazi duzuna arreta handiz zaindu.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Apaltasuna gure bizitzako jarrera izatea beharrezkoa dugu, Ebanjelioaren bide xumeak urratzeko. Ez dago lekurik handitasunerako, neurrigabeko ondasunentzako... Txikien eta apalen Jainko da Jesusen Aita eta gure Aita den Jainkoa.

Lehenengo irakurgaia (Si 3, 19-21. 30-31)

Siraken liburutik

Ene seme, izan zaitez apal zure egintzetan, eta gizon eskuzabala baino maiteago izango zaituzte. Izan zaitez, zenbat eta handiago, hainbat eta apalago, eta Jainkoaren ederra aurkituko duzu; handia da eta Jaunaren errukia, eta apalei agertzen dizkie bere ezkutuak.

Harroaren gaitzak ezin daitezke senda, gaiztakeriak zainak eginak baitauzka harengan. Zentzudunak zentzudunen hitzak maite ditu; jakinduriari erne dagokion belarriak poz izango du.

Erantzun-salmoa (Sal 14, 2-3. 4-5)

Ze-ru ta lu-rren E-gi-le-a, du-gu la-gun
ta zain-tzai-le-a.

Zintzoak poztzen dira, '
Jainkoaren aurrean alaitzen:
pozetan dira asetzen.

Kanta Jainkoari, egin goratzarre Haren izenari,
izena Jauna du, Haren aurrean poztu zaitzete. R/.



Umezurtzen aita da, alargunak ditu babesten,
bere egoitza santuan da egoten.

Jainkoak aterpe ematen die bazteruei,
loturik eramanak pozetan ditu askutzen. R/.

Bidali zenuen, ene Jainko, euri ugaria,
Zuk indartu zenuen zeure ondare eroria.

Han kokatu zen zure artaldea,
Zuk, ene Jainko, zeure ontasunean ‘
gizagaixoentzat eraturako lurrean. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 12, 18-19. 22-24a*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Zuek ez zarete, uki daitekeen mendi batera iritsi: su bizi, hodei, ilunbe, ekaitz, turutots, eta hitz orroetara; horrelakoak entzun zituztenek, berei gehiago hitzik ez egiteko eskatzen zuten.

Zuek Sionmendira hurbildu zarete, Jaungoiko biziaren herrira, zeruko Jerusalem, milaka eta milaka aingeruren batzarrera, zeruetan idatzirik dauden lehen semeen bilgurara, guztien epaile den Jaungoikoarengana, beren helburura iritsitako zintzoen espirituetara, elkargo berri baten bitarteko den Jesusengana.

Aleluia (*Mt 11, 29ab*)



Hartzazue nire uztarria –dio Jaunak–,
eta ikasi Nigandik, bihozbera naiz eta apala. R/.

Ebanjelioa (*Lk 14, 1. 7-14*)

Homiliarako argibideak

Azkeneko tokia

Krisia baino bi urte lehenago, hemengoek lan horiek nahi ez genituelako atzerritarren eskulana behar zuten hogeita bost lanbideren zerrenda agertzen zen. Eskulan astunak ziren, noski. Gaur egun, erabat aldatu da hori. Hemengo gizon-emakumeak ari dira ahal dituzten lanak hartzen, ordutegi eta soldata aldetik legez kanpoko etorkinentzat izan ezik erabat gaindituta uste genituen esplotazio-baldintzetan, batzuetan.

Ebanjelioan, **azken tokia** bilatzea gomendatzen du beti Jesusek (*Lk 14, 1. 7-14*). Egia esan, azken tokiak libre egoten ziren beti. Jesusek azken tokia aholkatzen badu, Hark ere toki hori nahi izan duelako da, azkenen artean egon nahi izan duelako. Jainkoa izanda, arazorik gabeko bizitza hauta zezakeen: herrialde aberats batean, arazorik gabeko familia batean jaiotzea. Horrela, ordea, bere idealekin identifikatuko zatekeen elite intelektual edo aristokratiko batentzat nakarrik izango zatekeen erakargarria bere bizitza. Milioika eta milioika pertsonetako baten modura bizitzea aukeratuta, **denen senide** bihurtu ahal izan da, pobreen eta munduaren begietara aintzat hartzekoak ez direnen senide, batez ere. Gu guztiok ahalguztidun eta garrantzitsua imajinatzen dugun Jainkoak pertsona xumeen konpainia bilatzen du, eta gure munduan bazter utzia izatea onartzen du (*Si 3, 17-18. 20. 28-29*).

Banketeak Jainkoaren Erreinua dakar beti gogora. Ezustekoak egongo dira han. Jesusek hainbatetan esan bezala: “azkenak

lehenengoak izango dira, eta lehenengoak, azkenak". Jainkoaren Erreinua mundu honetara etortzeak balio guztiak aldatzea eragin du. Gizartea ez da menderatze-nahiaren bidez eraldatzen, ahulenen **zerbitzura eta haiekiko elkartasunaren** bitartez baizik. Jainkoaren Erreinuari, mundu honetako boteretsuak egongo dira azken lekuetan.

Bizimodu berri horren fruitu da Jesusek ordain ezin diezazuketen pertsonen on egitera egiten duen deia. Bizitza soziala dohainen trukean oinarritua dago, ematean eta jasotzean. Zoritxarrez, zentzu material hutsean hartzen da truke hori, eta orduan ikusten dugu pertsona batzuek ezer gutxi eman diezaguketela, ez baitute ezertxo ere. Orduan, **alde batera** uzten ditugu, eta ez ditugu aintzat hartzen gure mundua antolatzeke orduan. Herrialde txiroek, **asko ematen digute**, ordea. Bizitzaren zentzu erlijiosoan, familiarren balioa, komunitatearekiko estimua eta bizipoza alaitasun-injekzioak dira beti, gure mundu triste eta nekatu honetan. Gizartearen begietara ustekabeen igarotzen diren pertsona xume askok ere mundua salbatzen duen altxor handi bat dute, ontasuna eta eskuzabaltasuna.

Frantzisko Aita Santuak askotan gogorarazi digu agintea zerbitzua dela. Eukaristian parte hartzeak Erreinuako banketea aurreratzen du. Ondasun guztiak gure anaia-arrebekin partekatzeko eta elkarrekin solidario izateko konpromisoa eskatzen du.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiozun Jaunari entzun ditzala deika ari zaion herriaren otoitzak:

—Egigun otoitz mundu zabaleko Eliza gogoan izanik; Jaunak lagun diezaion fedean, esperantzan eta maitasunean hazten.

- Egigun otoitz sufritzen duten guztiak gogoan izanik; kartzelatuek, gaixoek eta etxetik urrun diren guztiak Jaunaren babesa eta indarra izan dezaten.
- Egigun otoitz gure senide hildako guztien alde; Jainkoak bere etengabeko errukiz eta beso zabalez onar ditzan.
- Egigun otoitz Eukaristia ospatzen ari garenontzat ere; hemen ospatzen dugunaren fruituak eguneroko jardunean senideen zerbitzura jar ditzagun.

Jainko Jauna, behartsu eta bekatariak itun berriaren otordu pozgarrira gonbidatzen dituzu; entzun gure otoitzak eta egizu gaixoengan eta apalengan zerbitza dezagula Zure Semea, Zure mahaian bildurik elkarren senide garela ezagutu dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Mahai santuko ogia harturik, Jauna,
otoitz egiten dizugu:
maitasunaren janari honek
bizkor ditzala gure bihotzak
eta eraman gaitzala
Zu gure senideengan zerbitzatzera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**